

# begira

## EKOKILOMETROA, ULMAREN LANERAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIA

2022ko apirila  
# 54



4



—  
**Albisteak  
eta gaurkotasuna**

—  
ULMAk enplegu foroetara jo du  
talentu berrien bila  
**05**

—  
Aenak ULMAn jarri du  
konfiantza, Brasilgo 6  
aireportutarako bi eskari  
garrantzitsu esleituta  
**10**



—  
Ese Errek 20 urte bete  
ditu mantentze lanetako  
profesionalen zerbitzura  
**13**

—  
LeafShrink™, produktu  
xerratuak modu jasagarrian  
ontziratzeke soluzioa  
**14**

16



—  
**ULMA Taldeko  
beste talentuak**

—  
Jone Miren Aranburu.  
Musikak harrapatzen  
zaituenean, pasioari musika  
dario  
**16**

18



### — Erreportajeak

— ULMA, gaur eta beti, berdintasunaren alde!  
**18**

— EKOKILOMETROA, ULMAren arrakasta lanerako mugikortasun jasagarrian  
**20**

23



### — Agenda eta iradokizunak

— Erretiroak  
Urtarrilak 1 – Apirilak 30  
**23**

— Erronka: 30 egun bizikletan  
**24**



**ARGITARATZAILEA:** Grupo ULMA S. Coop. Garagaltza auzoa 51 20560 OÑATI, T 943 25 03 00

**ZUZENDARITZA:** Carlos Sarabia | csarabia@ulma.com

**ARGITARATZE/ERREDAKZIO KONTSEILUA:** Edurne Unzueta, Aitor Castro, Elena Goirizelaia, Maria Sendin, Sara Soria, Janire Laconcha, Nerea Burgoa, Itsaso Letamendi eta Carlos Sarabia

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Igone Basterra | ibasterra@ulma.com



Paper ekologikoa



## 240 METROKO BAO-SOLUZIOA, ELKARREN SEGIDAKO HEGALEN SISTEMAREKIN

ULMA CONSTRUCTION



**Cuiabá ibaiaren gainean, Brasilen, zubi berri bat eraikitzen ari dira elkarren segidako hegaleen sistemarekin,** Lakuaren Parkea Várzea Granden eta hiruburuan den Atalaia parkea lotuko dituen. Erronka nagusia ibaiaren nabigagarritasuna ez kaltetzea edo etetea izan da.

Zubiak 390 metroko luzera du, 240 metroko argia eta erdiko baoak 120 metroko bide nabigagarria, Brasilgo Itsas Armadaren prerrogatibak adierazitako neurriak kontuan hartuta.

Bertako ingurumenari eragin ez diezaion eta lurrean zurrak erabil ez daitezten, Cuiabá ibaiaren gaineko tartea ULMA Constructionen **CVS aitzinamendu-orgekin** egiten ari dira. Ekipo horrek aitzinamendu

hidraulikoko sistema bat du, beharrezko eskulana eta gauzate-denborak murrizteko. Aitzinamendu-orga horiez gain, ULMAren portfolioko beste produktu batzuk ere erabili dira, hala nola **COMAIN eta ENKOFORM enkofratuak, T-60 zinbria, BMK kotsola igokariak** eta pilak eta beste egitura batzuk gauzatzeko profil metalikoak erabili dira.

ERRONKA NAGUSIENA  
CUIABÁ IBAIAREN  
NABIGAGARRITASUNA  
EZ KALTETZEA EDO  
ETETEA IZAN DA.



## MOVIK, IZEN BERRIA IBILBIDE BERRI BATERAKO

ULMA HANDLING SYSTEMS



ULMA Handling Systemsek MOVIK aurkeztu du, hau da, **automatizazio intralogistikoko prozesuetan lehen pausoak egingo dituzten enpresa txiki, ertain eta handientzako soluzioak garatzera bideratutako negozio lerro berria**. MOVIK izenak, berez, zer eta nola mugitu esaten digu,

eta argudio nagusi hauek izan nahi ditu sektorean: produktuen eta zerbitzuen azkartasuna, eskalagarritasuna eta baliabideen eraginkortasuna.

Negozio lerro berri hau **merkatu nitxo** zabalago eta etorkizun oparoagoko batera bideratzen

da, **non soluzio intralogistikoak soilik industria handien kontua izateari uzten dioten**. MOVIK, beraz, ULMA Handling Systemsen «We handle your success» esloganaren balioari gehitzen zaio.

## ULMAK ENPLEGU FOROETARA JO DU TALENTU BERRIEN BILA

Urteko lehen hiruhilekoa enplegu foro garrantzitsuenetara joz hasi dugu, talentu berrien bila. **ULMA hazten ari da, eta zaila da profil batzuk aurkitzea, ULMAK behar dituen ezaugarri espezifikoak direla eta**; horregatik, gurera ondo egokituko diren pertsona talentudunak aurkitzeko kanpaina betean gaude.

Horretarako, modu aktiboan parte hartzen dugu enplegu foroetan, hala nola **“2022ko Enpresaren Egunean”**, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan; **Enplegu eta Enpresak Aurkezteko Jardunaldian (2022 JEPE)**, Bilboko Ingeniaritza Eskolan, eta **Deustuko Unibertsitateko Enplegu eta Ekintzailtzaren Foro birtualean**, besteak beste.



ULMA TALDEA



## FATXADA AIREZTATUEN STONEO ESTALDURA

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

STONEO PURE  
STONEO LOOK  
STONEO ART  
STONEO FEEL



ULMA Architectural Solutionsen fatxada aireztatuen STONEO estaldura berriaren ezaugarri nagusia da akabera ugari dituela, eta, horri esker, **arkitekturaren sektoreari aukera zabal, moldakor eta interesgarria eskaintzen**

**diola proiektu bakar eta bereziak sortzeko.**

STONEO estaldurak 4 testura eta akabera nagusi ditu bezeroen beharretara egokitutako soluzioak garatzeko:

•**STONEO PURE:** gamarik naturalena, eta harrizkoa. Bertan, tonalitate eta kolore organikoenak biltzen dira. Tonu argi, krema eta harezkoetatik hasi eta tonu gris eta ilunetaraino.

•**STONEO LOOK:** gure gamarik dinamikoena. Gama honen bidez fatxada bizi eta organikoak sortzen dira, proiektatzen diren argi-itzalei esker.

•**STONEO ART:** sormen askatasuna bilatzen ari bazara, STONEO ARTEk pertsonalizazioa ahalbidetuko dizu, arkitektura taldearen inspiraziotik sortzen diren testurak sortuz.

•**STONEO FEEL:** akabera jarraitu eta uniformearen duen gainazal laua.

## #ULMAWECARE PROIEKTUA ERREFERENTE GISA SENDOTU DA BARAZKI ETA FRUTEN ONTZIRATZE JASANGARRIAN

ULMA PACKAGING

ULMA  
WeCare



Barazkiak eta frutak modu jasangarrian ontziratzeke soluzio berriak, #ULMAweCare proiektuaren barruan, guztiz birziklagarria den **ontzi berri bat** eskaintzen du, **kartoizko erretilu batez eta paper bilgarriz** osatua. Soluzio honek **enbasean erabilitako plastiko guztiaren %100 murrizten du**, eta, gainera, elikagaiak baldintza bikainetan gordeko direla bermatzen

du, produktuak behar bezala transpiratzeko eta hura ikusteko aukera ematen duen zelulosazko sare bat daukalako.

#ULMAweCare proiektuaren helburu nagusietako bat jardueraren ingurumen inpaktua murriztea da. Izan ere, arlo horrek interes berezia izan du historikoki ULMA Packagingen.

ULMAko jasangarritasun arduradun den JOSU GARCIAK adierazi duenez, *“Plastikozko ontzien hondakinek ingurunean duten inpaktua gero eta handiagoa dela kontuan hartuta, #ULMAweCare proiektua abiaraztea erabaki genuen”. Anbizio handiko jasangarritasun plan bat da, balio kate osoan ekonomia zirkularra lortzea helburu duena”.*

## BESTE DORRE BAT LIMAKO ERDIGUNEAN, PERU



ULMA CONSTRUCTION

REPUBLICA DORREA DA LIMAKO SAN ISIDRO FINANTZA GUNEAN DAGOEN CAPITAL CENTER PROIEKTU ENBLEMATIKOAREN BIGARREN ERAIKINA.


Eraikuntzak ingurumenaren eraginkortasuna eta erabiltzailearen esperientzia hartu ditu kontuan, langileen egunerokoan ongizatea sortzeko. 1.500 m<sup>2</sup>-ko 19 solairu, 7 soto, heliportu bat eta aisialdirako guneak ditu.

Lurpeko pantaila hormak egiteko, **COMAIN enkofratua erabili da, lodiera txikiagoko euste hormak, kalitate onekoak, seguruak eta diseinukoak lortzeko.** Lehen mailatik aurrera, hormak **LGW enkofratu arinarekin** egin dira. "C" formako nukleorako (igogailuen zuloa) irtenbide gisa, **RKS sistema igokari gidatua** planteatu da, LGW enkofratu panelekin konbinatuta.

72 metroko altuera duen dorrearen eraikuntza **HWS perimetro**

**babesarekin** osatu da hirugarren solairutik; **irtenbide horrek lan espazio seguruak** sortzen ditu, eta kontuan hartzen ditu bai materiala pilotzea, bai obraren barruko zirkulazioa.

## ULMAN AHOZKO EUSKARA GEHIAGO ERABILTZEAREN ALDE



ULMAN euskararekin dugun konpromisoak beste pauso bat egin du 2021ean. Urte amaieran zenbait neurketa egin ziren negozioetan euskararen ahozko erabileraren maila norainokoa zen jakiteko. Neurketa horiei esker, badakigu negozio bakoitzean zenbat elkarrizketa izan diren euskaraz (erabilera zutabearen islatutako datua) eta zenbat aldiz hitz egiten duten euskaraz dakitenez elkarrekin daudenean (leialtasun zutabearen jasotako datua).

2022an **euskararen ahozko erabilera areagotu nahi dugu**, eta horretarako **beharrezkoa da ULMAN lan egiten dugun guztion konpromisoa. Eutsi erronkari!**

Oharra: ULMA Manutentzio Zerbitzuen kasuan, azken neurketa 2019koa da. Bestalde, ULMA Embedded Solutionsen, langile kopuru txikia dagoenez, ahozko erabilera Koloregrama bidez neurtzen da, eta ez Kale Erabileraren Neurketa metodoaren bidez.



## KALITATE HANDIKO HORMIGOI ARKITEKTONIKOA ULMA ENKOFRATUEKIN

ULMA CONSTRUCTION



VARSOVIAKO ARTE MODERNOKO MUSEOAREN PROIEKTUAREN ESKAKIZUNETAKO BAT ZEN HORMIGOIAREN GAINAZALAREN KALITATE HANDIA LORTZEA.

Arte Modernoko Museo berria Varsoviako erdi-erdian dago, Polonian. In situ isuritako hormigoi arkitektoniko zuriko eraikinak beirateak ditu diseinuan, eraikinak ematen duen sendotasun eta trinkotasun sentzazioa hausteko. Eraikinak ia 20.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du guztira, eta erakusketetarako gunek, heziketa aretoak, kontserbazio tailerrak eta kafetegi bat eta zinema bat ere izango ditu barruan.

**Hormak eta zutabeak egiteko, VMK haben enkofratua erabili da. Paneletan plastikozko estaldura duen taula erabili da, hormigoiaren gainazalean tonu uniforme lortzeko.**

ULMA sistemiei esker, hormigoiaren azaleraren kalitate handia lortu ahal izan da, eta proiektuen hasieratik inplikaturako arteko lankidetzaren estua funtsezkoa izan da eskatutako baldintzak lortzeko.



## ULMA TUNACAN PROIEKTUAN PARTE HARTZEN ARI DA

AZTIk -itsas ingurunean eta elikaduran espezializatutako zentro zientifiko eta teknologikoa-, **kontserbako arrainaren kontsumoaren ondorio onuragarriari buruz** egiten ari den **nutrizio azterketan** sartu du ULMA.

ULMAko pertsonak-osasuntsuak eta patologiarik eta alerjiarik gabeak- boluntario gisa aurkeztu dira azterlan honetan parte hartzeko, eta galdetegi bat bete dute, AZTIk parte hartzaileen azken hautaketa egiteko baloratu duena.

Une honetan ULMAko **22 pertsona ari dira proiektuan parte hartzen**. Aurrez analisi espezifiko bat egin zaie OSARTENen, eta jarraibide nutrizional batzuk jarraitzen ari dira. Jarraibide horiei eutsi egingo diete azterketak irauten duen 4 hilabeteetan, eta azterketa amaitzean, ekainean, jasotako datu guztiak aztertuko dira.

Azterlan honen bidez, **kontserbako arrainaren ohiko kontsumoak dituen ondorio onuragarriak frogatu ahal izatea aurreikusten da.**

ULMA TALDEA





## ULMA FORGED SOLUTIONSEN BULEGO BERRIA EKIALDE ERTAINEAN

ULMA FORGED SOLUTIONS

ULMA Forged Solutionsek **bulego berri bat ireki du Dubain, eta bertatik erantzungo die Middle-East eremuko eskari berriei, non OIL & GAS sektoreko jarduera garrantzitsua biltzen den.** Ezarpen berri honen bitartez, hornidura kate osorako produktuen eta soluzioen eskaintza komertzialean sakondu nahi da, hasi fabrikaziotik, banatzaileetatik eta EPC ingeniarietzetatik, eta azken bezeroetaraino; hala, produktu forjatuen (bridak) hornitzaile nagusietako bat bihurtu nahi da aipatutako eremuan.

Irekiera berria Afthab Muhammed jaunak -Dubain kokatua- eta Jon Urzelai jaunak -Espainiako matritzetik- zuzenduko dute, eta 2022rako planteatutako apustuari ere erantzuten dio; izan ere, **ULMA Forged Solutions hazten ari da gero eta produktu gama zabalagoa duten merkatu nitxo desberdinetan.** Iragan 2021eko ekitaldia emaitza positiboekin itxi zen, nahiz eta urtea zaila izan energia, logistika eta lehengai kostuek gora egin zutelako, eta baita COVID-19aren pandemia globalak sortutako ziurgabetasunagatik ere.

## ARKITEKTURAKO AURREFABRIKATUAK, HOBETUAK ETA DISEINU PERTSONALIZATUKOAK

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



LEHEN

BILBOKO TXOMIN GARAT KALEKO FATXADAREN BIRGAITZEA ERAIKIN BATEN JATORRIZKO ESTETIKA MANTENTZEAREN ETA, ALDI BEREAN, ERAIKINAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK HOBETZEAREN ADIBIDE ADIERAZGARRIA DA.

Jatorrizko piezek, denborarekin, ura xurgatu zuten, eta behin barruan, ur horrek herdoila sortu zuen. Birgaitze honetarako ULMAk diseinatutako pieza berrien kasuan, **materiala iragazgaitza da, ur xurgapenaren indizea ia nulua da eta ez du herdoiltze arazorik.** Sistema, gainera, jatorrizko pisuaren laurden batera arintzea lortu da.

ULMA Architectural Solutionsek **proiektu honetarako bereziki diseinatutako hiru pieza aurrefabrikatu mota hornitu ditu:** diamante formako terraza pertsonalizatuen aurrealdeak, isurki bereziak eta jardineria berezien aurrealdeak. Gainera, ULMAren gama estandarreko hainbat zabaleratako isurkiak, horma txapelak eta janbak ere hornitu dira.



ORAIN

## AENAK ULMARENGAN JARRI DU KONFIANTZA, BRASILGO 6 AIREPORTUTARAKO BI ESKARI GARRANTZITSU ESLEITUTA



ULMA Handling Systemsek **Baggage Handling sistemaren bi eskari garrantzitsu** garatuko ditu Brasilgo sei aireportutarako, AENA Brasilek egindako esleipenari esker. Esleipen garrantzitsu hori, ULMAko Baggage Handlingeko zuzendari Nacho Ortizen hitzetan, “baliagarria izango zaigu Brasilgo aireportuak murgilduta dauden pribatizazio prozesuaren ondorioz etorkizunean egingo diren inbertsioen aurrean berriro ere enpresa erreferente gisa posizionatzeko, beste behin ere erakutsiz AENAK ULMAn jarria duela konfiantza”.

**Eskarietako bat Recife Nazioarteko Aireporturako izango da, Pernambucoko hiriburuan. Aireportuak 9 milioi bidaiari inguru jasotzen ditu urtean, eta Baggage Handling**



**sistema segurtasuneko 3. araudi estandarrera egokitzea eta helmugaren arabera hegaldien sailkapen berri bat sartzea izango da egin beharrekoa.** Egokitzapen horretarako, 3 EDS makina estandar sartuko dira aireportuaren segurtasuna bermatzeko, eta, bestalde, maletak hipodromo desberdinetan sailkatzeko sistema garatuko da, airelinearen edo hegaldiaren helmugaren arabera.

Bigarren eskaria Brasilgo Campina Grande, Juanceiro do Norte eta nazioarteko Joao Pessoa, Aracaju eta Maceio aireportuetako **Baggage Handling sistema konbentzionalen birmoldaketan oinarritzen da.**

ESLEIPEN HONEK ERREFERENTE GISA POSIZIONATZEN DU ULMA BERRIZ ERE BRASILEN.



## TURROIAK HUTSEAN ONTZIRATZEKO FLOW PACK SOLUZIO BERRIA

ULMA Packagingek ontziratzeko soluzio gama zabalenetako bat du merkatuan. Kasu honetan, turroiak ontziratzeko garapenik aurreratuenetako bat aurkeztu du, hutsean ontziratzeko Flow Pack lerroan.

Ontziratze prozesuan, **ontzia egiten duen Flow Pack makina bat dago**. Erabat itxita egoten den ohiko flow pack ontziarekin gertatzen denaz bestela, kasu honetan ontzia **mutur bat irekita duela ateratzen da ontziratze makinatik, ondoren hutseratze prozesu bat egiteko**.

Hona hemen teknologia honen abantaila nagusiak:

- **Produktuaren balio biritza handitzea:** hutseratze prozesuaren emaitza zera da: ontziak baldintza onenetan babesten du produktua kontsumitu arte.
- **Ontziratze soluzioaren moldakortasuna:** ontziratze soluzio hau egokia da produktuen dimentsio desberdinetarako. Abantailak bat formatu aldaketaren azkartasuna eta sinpletasuna da.

- **Jasangarritasuna:** goiko bobina duen Flow Pack makina batek produktua ontziratzeko aukera ematen du lehen mailako ontziratzearen beharrik gabe; ondorioz, film gutxiago erabiltzen da.
- **Automatizazioa:** bezeroaren behararen arabera, prozesua erabat automatikoa edo erdiautomatikoa izan daiteke.



ULMA PACKAGING

## ADVANCED FACTORIES AZOKAN IZAN DA ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

ULMA Embedded Solutionsek Advanced Factories azokan parte hartu du. **Automatizazio, adimen artifizial eta 4.0 industriako azken berrikuntzetara** bideratu da azoka.

ULMAk erakusketari gisa parte hartu du bertan eta industria enpresen eraldaketa digitala errazten duten IoT soluzioen arrakasta kasuak erakutsi ditu, baita test prozesuak automatizatzeke sistemengarapenean duen esperientzia ere.

2022ko martxoaren 29tik 31ra bitartean Bartzelonan egin den azoka honetan 260 aditu baino gehiago bildu dira, eta hitzordu profesional



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

nagusia da produktibitatea hobetzeko eta enpresen lehiakortasuna areagotzeko azken joerak deskubritu nahi dituztenentzat.

## IRUDI ETA LELO BERRIAK DITUGU!

Argitaratu berri dugu Construction Book. Bertan jasotzen dira azken urteotako proiekturik nabarmenetako batzuk, eta bertan aurreratzen ditugu ere slogan berri bat eta diseinu grafiko berri bat. Gure markaren funtsak berdina izaten jarraitzen du; hori ez da aldatu nahi dugun zerbait, protagonista, gure bezeroak, izaten jarraitzen baitute.

Gure irudia eta gure mezua egokitu ditugu, baina gure izaera eta gure jatorria mantendu dugu.

Idea bat definitu dugu, enpresa gisa dugun asmoa adierazten duena eta garena eta eskaintzen duguna argi eta zehatz azaltzen duena. **It's all about trust**, Konfiantzaren balioa.



ULMA CONSTRUCTION

Hurbiltasuna eta malgutasuna arrakastarako gako direla ulertzen duen ekipo bat gara, une oro modu pertsonalizatuan aholkatzeko prest dagoena, proiektu bakoitzean hasieratik bukaerara bezeroaren

ondoan egongo dena, enkofratuaren eta aldamioren diseinutik materiala garaiz hornitzera, baita zerbitzu logistikoa eskaintzea eta obran bertan gainbegiratze lanak egiten ere.

## EUSKADIKO FLL-REN XIII. EDIZIOAREN FINALA EGIN DA

ULMA TALDEA



43 ikastetxetako 970 gazte inguruk First Lego Leaguen (FLL) aurten planteatutako **erronkari aurre egiteko soluzio zientifiko eta teknologikoak** erakutsi zizkioten epaimahai bati. Hauxe zen aurtengo erronka: **garraioaren logistika**. ULMAk Elkar Hezi Ikastetxea eta Oñati BHI institutuak babestu ditu.

Aurtengo edizioan **iaz baino ia %30 ikastetxe gehiagok** hartu dute parte. Gainera, 30 erakundek (enpresak, unibertsitateak, ikerketa zentroak eta erakundeak) eta 200 boluntariok baino gehiagok lagundu dute ekitaldia antolatzen.

Aurtengo berritasuna izan da prestakuntza saioak bigarren hezkuntzako euskal ikastetxe guztietara irekita egon direla, FLLn parte hartu ala ez.



**ENEKO IZQUIERDO**  
FLLko boluntarioa eta ULMA Packagingeko bazkidea da, eta duela 13 urte lehen edizioa egin zenetik ari da kolaboratzen.

*"Soluzioak oso burutsuak izan dira; igartzen da lanbideak oraindik biziatu gabeko pertsonen eskutik datozela; oso soluzio freskoak, beste ikuspegi batzuekin gauzatutakoak".*



## ESE ERREK 20 URTE BETE DITU MANTENTZE LANETAKO PROFESIONALEN ZERBITZURA



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

**Ese Erre, ULMA Manutentzio Zerbitzuetako profesionalentzako ordeko piezak saltzeko jarduera, 2002. urtean sortu zen, negozio zorroa dibertsifikatzeko helburuz. Bi hamarkada geroago, jarduera sendotu egin da, Negozioaren hazkunde handieneko dibisioetako bat bihurtzeraino.**

Garai hartan ere, Eduardo Trojaolak argi zeukan: *“Helburua da ecommerce baten bidez berrikuntza prozesu errazekin eta oso modu lehiakorrean uztartzea, une oro prestatuta egongo den giza talde aditu bat edukitzearekin batera”*. 20 urte geroago, Ese Erre erreferente bihurtu da 4.0. industrian, ordeko piezen sektorean.

Denbora horretan, Ese Errek garai berrietara egokitzen jakin du, lehiakorrak izaten jarraitzeko eta zerbitzu malgua eta oso profesionala emateko, eta aldi berean salmentak handituz, baita krisi ekonomikoaren urte gogorretan eta pandemia garaian ere.

## ULMA CONVEYOR COMPONENTS KOLONBIAN LEHORRERATU DA

ULMA Conveyor Componentsek zenbait arrabol instalatu eta martxan jarri ditu Kolonbiako ikatz meategi nagusietako batean. **Proiektu honen emaitzak positiboak badira, bezero garrantzitsu honen etorkizuneko lizitazioetan parte hartzeko eskubidea izango du ULMAK, arrabolak hornitzeko kontratu garrantzitsuetan esleipendun izateko aukera handiekin.** Era berean, are gehiago indartuko da konpainiaren presentzia amerikar kontinentean.

Kolonbian sortu den aukera berri hau helburu batzuen emaitza da, alegia, merkatuak dibertsifikatzearen emaitza. Helburuok Plan Estrategikoan jasota daude, eta hola hasi dira homologazio prozesuak sektoreko bezero nagusietan.

Munduaren luze-zabalean 10 homologazio prozesu baino gehiago abian jarrita (Kanada, Australia, UAE, Txile, Indonesia...), ULMA Conveyor Componentsek dibertsifikazioaren eta nazioartekotzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, gaur egun



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

kooperatibaren salmenten %90 baino gehiago esportatzea ahalbidetzen duen posizionamendu globalerako tresna gisa.

## LEAFSHRINK™, PRODUKTU XERRATUAK MODU JASANGARRIAN ONTZIRATZEKO SOLUZIOA



LeafShrink™, berez, ontziratzeko soluzio bat da, atmosfera kontrolatua ontziratzen diren produktu xerratuak, esnekietara zein haragi produktuak bideratua, horien balio bizitza handitzea helburu. LeafShrink™, gainera, #ULMAweCare proiektuaren emaitza ere bada, eta gero eta jasangarriagoak diren soluzioak eskaintzen ditu, plastikozko ontzien hondakinen ingurumen inpaktua txikituz.

Ontzi honek, ontzi tradizionalen aldean, **%85eraino murrizten du plastikoa, kartoizko erretilu laua eta barrera film atzeragarri ultrafina** baitu. Horren emaitza %100 birziklagarriak diren hondakinak ematen dituen ontzi bat da; gainera, **erraz eta eroso irekitzen da**, ontzia urratzen duen etiketa itsaskor bati esker.

LeafShrink™ ontziaren barrera film atzeragarriak aukera ematen du barruan atmosfera kontrolatua

duen ontzi bat egiteko, produktua, kontsumitu arte, baldintza onenetan zainduz.

Ezaugarri horien guztien ondorioz, ontzi jasangarria, funtzionala eta birziklatzeko bikaina izateaz gain, begietara ere erakargarria da, bi aldeetan inprimatu daitekeen kartoizko erretiluak aukera asko ematen baititu.

BARRERA ONTZIA,  
PRODUKTUAREN  
BITZTA ERABILGARRIA,  
KONTSUMITU ARTE,  
AHALIK ETA BALDINTZA  
ONENETAN LUZATZEKO  
GAKOA

Ontziaren atzealdean, filma hermetikoki zigilatzen da ia ikusezinak diren soldadura lerro finen bidez.





## ULMAREN DRAINATZE KANALAK ESPAINIAKO OSASUN ZENTRORIK ONENEAN

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



A ESTRADAKO OSASUN ZENTROAK, PONTEVEDRAN, ULMAKO DRAINATZE SISTEMAN JARRI DU KONFIANTZA BERE INSTALAZIO BERRIETARAKO.

Espainia osoko lehen mailako arreta zerbitzu onenari ematen zaion «Best in Class» saria jaso duen zentro honek ULMA Architectural Solutionsen drainatze kanalak

erabili ditu bere instalazioetarako, estetika diskretu, dotore eta atsegina eskainiz, zentroaren diseinuarekin bat etorritz.

Oinezkoentzako guneeetan eta autoak noizbehinka dabiltzanetan, **SELF 300 eta EUROSELF drainatze kanalak** erabili dira hormigoizko polimeroz eginak. Kanal horiek ezin hobekak dira plazetarako, jolas guneeetarako, barruko kaleetarako, parkeetarako eta abarretarako.

Gainera, 50 mm-ko altuera duen **drainatze arineko MINIKIT kanala** erabili da garaiera mugatua duten eremuetan. Kanal hau ezin hobea da garajeetako forjatuetan, sotoetan, aldageletan, teilatuetan eta abarretan erabiltzeko.

## H-33 ZERTXA, IRTENBIDE MODULARRA ETA SOSTENGATZAILEA KRAKOVIAN BI ZUBI ERAIKITZEKO

Krakovian (Polonia) bi zubi berri eraikitzen ari dira **Vistula ganean: M1 eta M3 zubiak**. Lehen zubia distantzia luzeko trenak erabiliko dute, eta bigarrena aldirikoek. Distantzia luzeko trenen eta aldirikoen trafikoa banatzeak nabarmen hobetuko du trenen joan-etorria tarte horretan, eta konexioen kopurua handituko du, bidaia denbora laburtuko du eta bidaiarien erosotasuna eta segurtasuna bermatuko ditu.

ULMA Constructionek **enkofratuen, zinbrien eta aldamioren irtenbide integralak** jarri ditu eraikuntzaren fase guztietan eta M1, M2 eta M3 hiru zubien egituretan.

M1 zubia lau bao ditu euskarri artean. Hiru baotan enkofratua



ULMA CONSTRUCTION

sostengatzen duen egitura **karga handiko H-33 zertxen sistema** batekin egin da, 24-30 metroko luzeran. Sistema hori modularra da, lurrean soilik pixka bat zurkaiztu behar da, eta erraz muntatu eta manipulatu daiteke. Baorik estuena

12 metro luze diren TAC altzairuzko profilekin egin da.

M3 egitura antzeko teknologia erabiliz diseinatu da eta trenentzat, oinezkoentzat eta txirringarientzat izango da.

## ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

# MUSIKAK HARRAPATZEN ZAITUENEAN, PASIOARI MUSIKA DARIO



— **JONE MIREN ARANBURU**  
ULMA PACKAGING



## “MILA KONTUTAN SARTUTA EGOTEAK ANTOLAKUNTZA HANDIA ESKATZEN DU, ETA, BATEZ ERE, FAMILIAREN LAGUNTZA EZINBESTEKOA DA”

**Jone Miren Aranburu ULMA** Packagingeko bazkidea da, eta esportazio departamentuan lan egiten du.

Oñatiko Musika Eskolan hasi zen klarinetea jotzen 16 urterekin, eta 2021eko urrian, bandan zuzendaria aldatzean, hark errekintoa (klarinetearen familiakoa den baina txikixeagoa den instrumentu bat) jotzea proposatu zion. *“Egia esan, ilusioa egiten zidan, amaren aldeko aitona ere errekintoa jotzen baitzuen La Pamplonesan; beraz, onartu egin nuen gonbidapena”*, azaldu du.

Astean birritan entseatzen du, taldearekin batera, Oñatin, Santa Ana aurrean dagoen lokal batean. 55 lagunek osatzen dute taldea, eta musika klasikotik hasi eta musika garaikideraino jotzen dute. 2021-2022 ikasturtean, ematen ari diren kontzertuak monografikoak dira, besteak beste:

• **“Munduan Zehar”** Munduari bira 80 egunetan, Orient Express, Gulliverren bidaiak...

• **“Klasiko handiak”** Jostailuen sinfonia, Carmina Burana, Beethovenen 5. Sinfonía...

• **“Zinemaldia”** Star Wars, Gladiator, Miserableak...

*“Adibidez, martxoko kontzertua kontzertu pedagogikoa izan da eta hurrei zuzenduta egon da batez ere. Marrazki bizidunetako musika jotzen dugu. Apirilekoa opera izango da eta*

*ekainean artisten omenez joko dugu”*, gehitu du Jone Mirenek.

Banda eta lana uztartzea ez zaio zail egiten, lanalditik kanpo egiten delako; banda familiarekin uztartzeak, berriz, ahalegin handiagoa eskatzen dio, batez ere ama izan ondoren.

Pandemian entseatzeari utzi behar izan zioten eta banda geldirik egon zen luzaz. 2021eko ekainaren amaieran ekin zieten berriro entseguei, baina pandemiaren arauak eskatzen zuten toki handiago batean entseatzea, segurtasun distantziari eutsi ahal izateko, instrumentuak ezin baitira maskara jantzita jo. *“Ez zen erraza izan, batez ere geldialdi luzearen ondoren, jardunera itzultzea. Eta intzidentzia tasa oso altu ibili den aldietan, ziurgabetasun eta beldur handiko uneak izan dira, baita konfinamenduengatikoko baja asko ere... Baina lan handia egin da eta jendearen jarrera funtsezkoa izan da”*, ziurtatu du.

Bandan hasi zeneko urte berean ekin zion Ganbara Abesbatzan abesteari. Sei urteren buruan utzi zuen, gutxi gorabehera; izan ere, asko gustatzen bazitzaion ere eta lagun onak bazituen ere, asteburu guztiak beteta edukitzen zituen, eta hori ez zen berak nahi zuena. 2016. urteaz geroztik, Jone Miren ahots zurien mezzo sopranoa

da Hots Abesbatzan, Ganbara Faktoriaren barruan, hilean behingo entsegu formatuarekin. Abesbatza 40 lagunek osatzen dute eta erreperitorioak “a cappella” interpretatzen dituzte, pianoak lagunduta, baita ganbera orkestrarekin ere, proiektuek hala eskatzen dutenean. *“Atsegin handiz estreinatu ditugu Eva Ugalde, Josu Elberdin eta Junkal Guerrero konpositore ezagunen lanak, besteak beste”*, esan du ilusioz beterik. Apirilean Ejea de los Caballerosa (Zaragoza) egingo dute bidaia, eta bertako lehen lehiaketan parte hartuko dute..

Gainera, Jone Miren abesbatza batzordeko kidea ere bada, eta batzordeko idazkaria bandan. *“Beraz, egia da batzuetan lan karga dezente pilatzen zaidala eta ez zaidala erraza egiten dena bateragarri egitea. Eskerrak behintzat batzordeetako karguak txandakakoak diren!”*, adierazi du.

# ULMA, GAUR ETA BETI, BERDINTASUNAREN ALDE!

Martxoaren 8an  
Emakumearen Nazioarteko Eguna  
ospatu genuen.

Parte hartzeko eta ospatzeko eguna, gure eguneroko bizitzan emakumearen desberdintasun egoerak, inklusioa eta garapena ikusaraziz, lagunduz eta hobetzeko ahaleginak eginez.







GURE NEGOZIO GUZTIEK  
AKTIBOKI BABESTU  
ZUTEN MARTXOAREN 8KO  
EKIMENA



IÑAKI GOITIA

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



*Berdintasuna,  
kooperatibista gisa,  
denon kontua da*

OIHANA JAUSORO

BERDINTASUN BATZORDEA



*Ezinbestekoa da  
prozesuetan genero  
ikuspegia aplikatzea,  
gure gizartean  
oraindik dauden  
desberdintasunak aztertu  
ahal izateko*

Berdintasunaren alde eginez bat egin zuen ULMAK egunarekin. Berdintasun Batzordeak jardura bat antolatu zuen, gure Negozio guztietara zabaldu zena. Ekimen horretan aktiboki parte hartu zuten ULMAko 2.700 gizon eta emakumek, berdintasunaren alde bat eginez, eguna oroitzeke txapa bat eramanez eta banakako zein taldekako argazki dibertigarriak eginez, eguneko ekimena babestuz. Argazki ugari jaso genituen gure negozioetatik eta martxoaren 8an bertan argitaratu genituen gure komunikazio kanaletan.

# EKOILOMETROA, ULMAREN ARRAKASTA LANERAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAN

ULMA, 2017az geroztik, Ciclogreenen Ekokilometroa programan aktiboki parte hartzen ari da. Programa honek ULMAko 565 langile ditu erregistratuta dagoeneko, eta 778.055 km egin dituzte guztira; honenbestez, 176.102 kg aurreztu da CO<sub>2</sub>-n.




Programa oso interesgarria da. Autoa etxean utzi eta aparkatzeaz ahaztu ahal izango zara; zu zeu eta Ingurumena irabazle. Bizikletan, patinetean, oinez, korrika... etorri ahal izango zara.

ULMAko pertsona askok hala egiten dute jadanik. Hori egiteaz gain, eta planetaren jasangarritasunari zure aletxoarekin laguntzeaz gain, zikloak lor ditzakezu lanerako ibilbidean, opariekin trukatzeko, [www.ekokilometro.ulma.com](http://www.ekokilometro.ulma.com) webgunearen bidez.

Urtean zehar zenbait erronka proposatzen dira parte hartu ahal izateko. Apiril honetarako 30 egun bizikletaz erronka daukagu eta emaitzak ULMAren kanaletan jakinaraziko ditugu.

Ekokilometroaren bidez, zure ingurunea eta osasuna hobetu, babestu eta zaindu ditzakezu.







**LANDER  
DIAZ DE GEREÑU**

ULMA TALDEKO  
LEHENDAKARIA



*“Ekokilometro kooperatibaren iraunkortasuna langile bakoitzaren maila pertsonalera zabaltzeko modua da, gure lanaren barruan zein kanpoan jasangarriak izan gaitezkeela erakutsiz”.*

*ULMAko pertsonak lanera egiten dituzten joan-etorri jasangarriek 175 tona CO<sub>2</sub> gutxiago isurtzea ekarri dute. (22.750 zuhaitzeko baso bat landatzearen pare)*



**Ekokilometroa** programan aktiboki parte hartzen duten ULMAko pertsonekin hitz egin dugu, beren esperientzia konta diezaguten.



**GORKA GOITIA**  
ULMA FORGED SOLUTIONS

“ Askatasuna ematen dit, eta aparkatzeko arazorik ez.

2020an hasi nintzen ULMAra patinete elektrikoaz etortzen, ordura arte autobusez edo kotxez joaten nintzen lanera. Urtean 1800km egiten ditut gutxi gora-behera eta oso gustora ari naiz, askatasuna ematen dit eta aparkatzeko arazorik ere ez dut izaten.



**VIRGINIA VALLS**  
ULMA TALDEA

“ Ekokilometroa bezalako ekimenak oso beharrezkoak iruditzen zaizkit langileen arteko mugikortasun jasangarria bultzatzeko.

Oñatikoa izanda, lanera oinez edo bizikleta elektrikoan etortzen saiatzen naiz. Mugikortasun jasangarriak onura kolektiboak dakartza ingurunean, eta eragin positiboa du, halaber, praktikatzen duenaren osasun fisiko eta mentalean. Ekokilometroa bezalako ekimenak oso beharrezkoak iruditzen zaizkit langileen artean mugikortasun jasangarria bultzatzeko.



**URKO BIAIN**  
ULMA PACKAGING

“ Pertsona guztiak animatzen ditut, ahal badute, probatzera.

EKOILOMETROA proiektua hasi zenean ez nuen zalantzarik izan eta izena eman nuen. Gainera, nire esfortzua eskertu egiten da. Enpresako autobusak kale egiten zuen batzuetan; hori dela eta, oinez etortzen hasi nintzen lanera. Horrek goizean lehenago jaiki beharra dakar, eta hasieran kosta egin zitzaidan, batez ere bazkalostean. Baina oinez etorrira, egunean 5 km inguru egiten ditut (40 minutu).

Luxubatdalanera oinez, bizikletaz... joan ahal izatea; borondate indar pittin batekin, ahal da. Pertsona guztiak animatzen ditut, ahal badute, probatzera. Osasunagatik eta ingurumenagatik. Orain gasolioaren orde zapatilak gastatzen ditut!



*ULMAko kolektiboaren keinu inportanteak dira, eta oso eragin esanguratsua dute urtero areagotzen ari den klima aldaketaren aurkako borrokan*

*ULMAko pertsonen lanerako joan-etorri jasangarrietan egindako distantzia 780.000 km ingurukoa da dagoeneko. (munduari 19 bira ematearen pare)*







**GREGORIO MAGNO TORAL**  
CEOA CICLOGREENEN

ULMAko Ekokilometroa programa eredugarria da, bertako pertsonen parte hartzea handia delako leku bakoitzean eta zuzendaritzaren inplikazioagatik. Biak ere funtsezko elementuak dira ekimen hau arrakastatsua izateko eta handituz joateko.

Gainera, programaren sariak tokiko dendetan erosteko bonuak dira, eta horrek onura sozialak ere badakartza, gertuko erosketa sustatzen baita.

Izan ere, sarritan jartzen dugu ULMA adibide gisa beste enpresa batzuen aurrean. Urrun joan gabe, Euskadiko azken ITS Batzarrean erakutsi genuen kasua, eta aldizka programaren emaitza onak aipatzen dizkiegu lanerako joan-etorri jasagarriak sustatuz beren karbono azterna murrizteko interesa erakusten duten beste enpresa batzuei.

Enpresa horiei esan nahi diegu ezen, komunikazio lan ona eginda -ULMAk egiten duen bezala- eta inplikatzeko konpromisoarekin, Ekokilometroa bezalako programa arrakastatsu bat inplementa dezaketela, hainbat komunitatetako egoitzen taldeko ehunka pertsona jasagarritasunaren helburu komunari lotuta.



# 2022

Urtarrilak 1- Apirilak 30

## ERRETIROAK

JOSEBA ANDONI UGARTE

ERNESTO MAESTRE

IMANOL KORTABARRIA



ION AMONDARAIN

NEREA ARBULU



JAVIER URIARTE



FRANCISCO NUÑEZ



Eskerrik asko eta gozatu!  
Zorionak

**Apirilean bizikletan mugitu**

**eta irabazi sari zoragarriak!**



**Parte hartu lehiaketan zure enpresarekin  
eta lortu lehen postura iristea!**

**1.** 

Ciclogreen app-a  
deskargatu zure  
mugikorrean

**2.** 

“Erregistratu zure  
erakundean” eta erabili  
“ulmawin” kodea

**3.** 

Erregistratu app-ean  
zure joan-etorriak  
eta gainditu erronka!

*Ciclogreen*

[www.reto30diasenbici.com](http://www.reto30diasenbici.com)

 **ULMA**